

Zipriztintzen

Berdintasunaren aldeko Ermuko gizon talde hau duela bi urte sortu zen, Emakumearen Etxeak antolatutako 'Maskulinitasuna eta sexualitate ez zapaltzaileak' deituriko ikastaroa burutu eta gero. Aurten ekintza berriak martxan ipintzeko asmoa dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

2008ko ekainaren 19an sortu zen taldea.

- Zenbat kide zarete?

Taldea 12 edo 15 lagun ingururen artean sortu genuen. Bi urte hauetan bajak egon dira eta 5 lagunek eramaten dugu orain pisu gehiena, aktibista gisa. Gainontzekoak 'satelite' moduan egiten dute lana, beharrezkoa denean edota ahal dutenean.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Hasieran talde gisa lana egiten hastea zen gure helburua: berdintasunean formatu, kontzientzia hartu eta gure burua- rekin lan egin, batez ere. Aurten, berriz, hiru ildo nagusi jorratzeko asmoa dugu. Alde batetik, gure burua prestatzen jarraituko dugu; bestetik, herriko jendeari gure lana ezagutaraziko diogu hainbat ekintzen bidez; eta azkenik, Emakumearen Etxean biltzen diren beste talde batzuekin ekintza- ren bat antolatzea gustatuko litzaiguke.

- Zertan oinarrituko dira ekintza horiek?

Jendeari begira antolatuko ditugun ekintzak, esaterako, etxeko lanak, 'mikromatxismoak' (edo matxismo berriak) eta aitatasun-mota berriak izango dituzte ardatz. Hauek tailer, ikastaro edota 'olinpiaden' bitartez landuko ditugu. Jen- deak gu ezagutzea nahi dugu. Hau ez da talde itxia, intere- sa duen guztiak parte har dezake, eta ekimen hauek hori adierazteko erabiliko ditugu.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?



Hamabostean behin biltzen gara, astelehenetan, 18.30etan, Emakumearen Etxean.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Helbide elektroniko honetara idatzi dezakete: zipriztin- zen@gmail.com. Horretaz gain bloga dugu: nodo50.org/er- mualibertario da helbidea eta bertan Zipriztintzen atalera jo. Horretaz gain, interesa duenak Emakumearen Etxean es- katu dezake informazioa.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

IZELAIETA, 40
ZUBIAURRE, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78